

EZAGUTU DEZAGUN LESAKA 2025

3-6. mailakoentzako GALDETEGIA



Izen-abizenak: _____

Maila: _____

- 1- Zeintzuk izan dira VI. LML-ko bazkide irabazleak?
- 2- Lesakako mendi lasterketan ze bi tontor igotzen dituzte parte-hartzaileak?
- 3- Zein da Frain mendian hagitz ugaria den eta lore horia duen zuhaixka?
- 4- Zein etxetan eta zein urtetan jaio zen Pepito Yanci Lesakako akordeoilari eta konposatzailea?
- 5- Jose Ignacio Murua Elizondo herritarrak egindako neurketen arabera, zein auzotan dago Lesakako erdigune geografikoa?
- 6- Espiritu txarrak uxatzeko zenbat zaindari ditu MARIGALANTENEA etxeko fatxadak?
- 7- Nola deitzen zaio GILLEMONEA pareko zubiari?
- 8- Zenbat arku ditu Beti Gazteren Egoitza dagoen eraikinak?
- 9- Beko-errotako putzu ondoan dagoen nekazaritzarako erramintak ze izen du?
- 10- Aipatu Lesakako Zambra aretoan izan zen nazioarteko talderen baten izena?
- 11- Zein omen da Lesakako eraikinik zaharrena?
- 12- Lesakako komentuan klausurako mojak bizi ziren. Zein ordenatakoak ziren?
- 13- Ze auzotakoa da argazkian ageri den iturria?
- 14- Gaur egun bide berdea dena trenbidea zen garai batean. Nola deitzen zitzaion bertatik pasatzen zen trenari?



- 15-Zein esaldi irakur daiteke Agiñan dagoen Aita Donostiaren oroimenez eraikitako monumentuan?
- 16-Nortzuk zaharberitu zuten Salvatore basiliza?
- 17-Lesakako zein kalek du apezpiku baten izena?
- 18-Nor izan ziren Beti Gazteren himnoaren letra eta musika asmatu zutenak?
- 19-Zein izen dute Lesakako erraldoiek?
- 20-Zein izan zen Lesakan telebista jarri zuen lehen ostaturia?
- 21-Gaur egun Lesakako auzoetan inauterien berri ematen aritzen dira Goitarrak eta Fraindarrak. Hamarkada batzuk atzera eginez gero, Nabaz auzoko talde bat ere hala aritzen zen. Nola izena zuen taldeak?
- 22-Zein urtetan eraiki zen hasieran Laminaciones de Lesaca, S.A. izena zuen eta gaur egun ArcelorMittal izena duen fabrika?
- 23-Zein zenbaki ageri da Alkaiagako frontoiko frontisean?
- 24-Zein errege-erreginek baimendu zituzten lehenengo aldiz Lesakako feriak? Noiztik ospatzen dira?
- 25-Izenda itzazu Lesakako bi mendi garaienak:
- 26-Zenbat armari ageri dira Pikabea baserriaren aitzineko aldean?
- 27-Zein bi Lesakar izan dira aurtengo inauterietan makil luzearekin atera diren bi zaku zaharrak?
- 28-Zein izen zuten Onin errekek bereizten zituen Lesakako bi auzoak?
- 29-Nola izena zuen Txipirinea etxabea urte luzez litxarrieriak saldu zituen dendako azken dendariak? Zein gertakariaren ondorioz itxi zen dendak?
- 30-Beti Gazteko futboleko emakumezko talde nagusiko hiru izen aipatu eta hauetako baten autografoa lortu eta txertatu.